

Itsasoar guztioi adeitasunez,

Jarraian, 2019ko ekainaren 8an burutu genuen HERRI BATZARREKO AKTA jasotzen da.

1.- Azken Batzarretik honakoak

- Udal Batzordearen osaketa Maiatzaren 5eko bozketaren ondoren, maiatzaren 10ean boto gehien jasotako lehen 10 herritarrak elkartuta, horrela geratu zen hautagaien zerrenda: Gorka Sasieta Barrenetxea, Maixabel Olanga Zabala, Anttoni Okariz Gorrotxategi, Kaio Iraeta Otamendi eta Olatz Iza Maiora.

Hauteskunde ondorengo Foru Aldundiko taldeak karguak hartu ondoren, hautagaien zerrenda bidaliko zaio, Itsasoko Udal Batzordea izenda dezan. Kargu-hartzea uztailean izango da eta bien bitartean, gaur egun dauden Udal Batzordekideek jarraitzen dute beraien funtzioetan.

- Azpiegiturak:


- Goienar: Udaletxeko obraren 2. fasea burutzen denean (ganbara eta teilatua), teilatuan plaka fotoboltaikoak jartzeko aukera aztertzen ari gara, eta Nafarkoop kooperatibari bideragarritasun azterketa eskatu zaio.
- Teknalia: Ganbarako zoru egurrak oraingoak mantentzekotan, eraikuntzaren egitura analisia egin behar da, eta ondoren, emaitzen arabera hormigoia kapa batekin indartu ganbara osoa. Analisia egiteko, ganbarako zoru osoa azpitik dago bistaratu beharra (udaletxean eta etxebizitzan) Ondorioz, aurrekontuak aztertu eta baloratu beharko da bi aukeren artean; egurrak mantenduz hormigoia botatzea, edo zoru osoa egur berriarekin egitea, hormigoirik bota beharrik gabe.
- Wifi Europa: Ekainaren bukaerarako wifi doakoa prest egotea espero da Itsasoko herri gunean eta Alegiako plaza inguruan.

- Deialdiak:

- Landabide: Herri-bideak konpontzeko lortutako diru-laguntzarekin Itturritako bide tramoia eta Errebueletatik Itze aldera doanekoa gehi Altzigarraga eta S Lorentzo bideko eskoilerak egingo dira. GAINERA enpresak egingo ditu ekainean hasita.
- EVE(Ente Vasco de Energía): Alegiako frontoiko argiterian hobekuntzak egiteko erabiliko da diru-laguntza. Led argiak jarriko dira. Gainera, txanpon makina kendu eta pulsadorea eta tenporizadorea duen sistema ipiniko da.
- Alegia-Uribar bide berdea: Alegiatik Uribar aldera doan bidea asfaltatuko da baina hori egin aurretik hesiak eta langak behar bezala jarriko dira bidea libre izateko.

- Ekintza sozio-kulturalak:

- Udalekuen antolaketa: Lau astetarako antolatu dira (ekainaren 24tik uztailaren 19ra) honako gai hauen inguruan: robotika eta bideo-jokoen diseinua; kirol anitza; sukaldaritza-zeramika; sukaldaritza-pintura.
- Formazio saioak (energia, nutrizioa) eta herriko produktuen eskaintza, ...) Energiarena (etxebizitzan birgaitzearen inguruan) eta nutrizioarena (osteoporosia prebenitzeko aholkuak) maiatzean egin ziren. Herriko produktuen ezagutza jakiteko inkesta ekainean banatu da eta ondoren herrian ekoizten diren produktuen katalogoa egin nahi da, proiektuaren lehen urratsak emanez.
- Euskara klaseen eskaintza: AEK-k eskaintza irekia egin du 2019-2020 ikasturtera begira. Izen-ematea, Udaletxean.
- Kontsumobide: Adinduentzat antolatutako tailerrak dira eta kontsumoaren inguruko eskaintza zabala egiten dute. Irailerako egingo da eskaera eta herritarren interesak kontutan hartuko dira.



2.- ITSASO 2030, PARTE-HARTZE PROZESUA

ITSASO 2030 Plan Estrategikoa definitzeko herritarren parte hartzearen oinarriak zein izango diren azaldu dute Siadecotik etorritako Juanjo Allurrek eta Itsaso Osak. Prozesuan landuko diren ardatz nagusiak 3 fasetan burutzea aurreikusten da:

ZER?

I. fasea: Zer gara? Gure balioak eta egungo egoera.

Zer hartu behar dugu kontutan?

Herritarrak, gazteak, ingurunea, tendentziak, esperientziak eta bilakaera demografikoan eragina duten faktoreak.

II. fasea: Zer izan nahi dugu? Norabide estrategikoa

Zein bide egingo dugu? Herri jasangarria, Herritarren ongizatea, Herri nortasuna.

III. fasea: Plangintza:

A) Bisioa, norabide estrategikoa

B) Arloak, erronkak eta herri-egitasmoaren printzipioak

C) 2020-2030 jarduera plana

D) Jarraipen eta ebaluazio irizpideak



METODOLOGIA (NOLA?)

1.- Ikerketa ekintza parte-hartzailea

2.- Gazteen ahalduntzea

3.- Aktoreak: herritarrak, teknikariak, Udal Batzordeko kideak, Siadeco.


4.- Lan taldeak:



DENBORALIZAZIOA (NOIZ?)

Hiru Batzar orokor egingo dira (ekainean, irailean, abenduan) eta tartetan osatuko diren lan taldeen lanketa izango da.

Siadecok aurkezpena egin ondoren, Batzarrera bertaratu ginenok, aipatutako hiru eremuetan herri bezala eta norberaren interesen inguruko lehentasunak aukeratu eta adierazi genituen. Herritar guztien iritzia jaso nahi da eta osatuko diren lantaldeetan aztertuko dira. Hauetan parte hartzeko deialdia zabalduko da.



**ITSASOKO
UDALA**
(GIPUZKOA)

HERRI BATZAR BEREZIA ITSASON
Ekainaren 8an, larunbata, 19:00etan

Itsasoko Udal Batzordea

Itsason 2019ko ekainaren 12an

